



**Haragi ustel artean narrasean doa zizare harroa.
Bere herio lanean, bera gabe hilotzik ez
legokeela ustein. Bere zizare ezjakintasunean
ez daki guztiz alderantziz dela.**

**Harroputz narrasten dira, irrifar egin
eta planeta ustel honetan zabaltzen dira.
Oso ongi ordainduak, jakinean seguru direla,
zigorrik ez dutela jasoko, loditzen dira.
Paper artean, pantailetan, jangelan, nekaezinak,
asperrezinak beraien herri-onura sozialaz
konbentziturik. Mina dagoenean harategi
kate bat antolatzen dute.**

**Galdera bakar batek jartzen ditu dardarka,
uzkurtzen direlarik...**

Non bizi dira tertulianoak?